

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Barkos Lehendakariak hizkuntzek gizartea aberasteko ondare gisa betetzen duten eginkizuna azpimarratu du

Hizkuntz Aniztasuna Sustatzeko Sare Europarraren jardunaldi batean parte hartu du Iruñean

Osteguna, 2016.eko maiatzak 26

Nafarroako Lehendakari Uxue Barkosek hizkuntzek gizartea aberasteko ondare gisa betetzen duten eginkizuna azpimarratu du, bai eta eskualde nahiz erakundeen arteko lankidetzaren garrantzia ere eskualdeetako hizkuntzak babesteko.

Hala adierazi du Hizkuntz Aniztasuna Sustatzeko Sare Europarreko kideei eskainitako harreran. Sare hori egunotan batzartuta dago Bilbon, eta gaur arratsaldean saio bat antolatu da Iruñean Euskarabideak euskara Nafarroan sustatzeko dituen politiken berri eman dezan, hedabideei eta IKTei arreta berezia eskainiz.

Uxue Barkosek esan du, gainera, hizkuntzak "funtsezko tresnak direla pertsonak elkar ulertu daitezen" eta "gure askotariko historiaren ikurrak nahiz testigantzak dira". Alde horretatik, nabarmendu du Nafarroako Gobernuak euskarari "merezi duen babesa ematearen aldeko apustua egiten duela, Foru Komunitatean dugun hizkuntz aberastasunaren adibide argia baita"; aipatu du, halaber, Sare Europarraren barnean izatea "aukera paregabea dela euskara Europako gainerako eskualdeetako hizkuntzekin lotzeko, hizkuntz aniztasunak duen garrantziaren gainean kontzientziazteko eta sentsibilizatzeko egiten duen lanaren" foro gisa.

Ekitaldian parte hartu dute ere, Sareko zuzendari exekutibo Meirion Prys Jones-ek, Patxi Baztarrika lehendakariak, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollok eta Euskarabideko zuzendari kudeatzaile Mikel Arregik.

Euskararen erabilera sustatzea

Aurrez, Mikel Arregik Hizkuntz Aniztasuna Sustatzeko Sare Europarreko kideei Foru Gobernua garatzen ari den neurri-sorta aurkeztuko die; neurri horiekin, euskararen erabilera sustatu nahi da eta Nafarroako biztanleen hizkuntz eskubideak bermatu eta, horretarako, 4,2



Barkos Lehendakaria bertaratu guztien aurrean hitz egiten.

milioi euro ditu, hau da, aurreko urteekin alderatuz, ia milioi bat gehiago.

Neurriak bi jarduera-esparrutan aplikatuko dira, bereziki:

Politika publikoen esparruan, honako helburu hau du: nahi duenak administrazioarekin euskaraz komunikatzeko aukera izatea, eta Administrazioak sortutako informazioa pixkanaka euskaraz eta gaztelaniaz ematea; horretarako, langile publiko elebidunei prestakuntza teknikoa eskainiko zaie herritarrei arreta emateko; langileak euskaraz trebatuko dira (hala egitea nahi dutenek); eta hutsik dauden hizkuntz eskakizuneko postuak eskaintza publiko bidez betetzea.

Arlo sozialean, funtsezkotzat jotzen da helduen alfabetizazioa eta euskalduntzea, eta euskararen erabilera hedabideetan sustatzea.

Hizkuntz aniztasuna sustatzeko Sare Europarra

Hizkuntz Aniztasunerako Sare Europarra (NPLD, ingeleseko siglak) hizkuntz konstituzionalek, eskualdekoek edo estatu txikikoek osatutako sare bat da; haren helburua eleaniztasun inklusiboa sustatzea da eta garapenerako nahiz aurrera egiteko aukerak ematea. Europa eta estatu mailako hizkuntz ofizialak batzen ditu (suediera eta irlandera, adibidez), eskualde mailan ofizialtasuna partekatuta duten hizkuntzak (galesa, euskara, katalana edo galiziera), eta babes maila gutxiagoko hizkuntzak (bretoiera, korsikera edo okzitaniera, besteak beste).

2007an sortua, eskubide osoko 14 kide ditu, gehienak eskualdeko gobernuak, eskualdeetako erakunde publikoak edo estatuko gobernuak eta elkarrekoak diren 23 kide; haien artean daude, Europako hainbat herrialdeetako unibertsitateak eta eskualdeetako hizkuntzako edo eremu urriko hizkuntzak sustatzen lan egiten duten elkarteak.

NPLDk Europar Batasuneko estamentu guztiekin lan handia egiten du, eta Europar Batasunarekin elkarlanean aritzen da eremu urriko hizkuntzak babesteko eta haien erabilera soziala zabaltzeko.